

**MONDRAGON UNIBERTSITATEKO – HUHEZI –
HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEKO
MASTER OFIZIALETAKO IKERKETA BEKAK**

Eskoriatzan, 2017.eko azaroak 8an

Sarrera

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI), irakaskuntza-kooperatiba da, irabazi asmorik gabekoa eta herri onurakoa, eta jarduera nagusi bi ditu: hezkuntza eta ikerketa.

2003-2004 ikasturtean hirugarren zikloko ikasketak ezarri ziren, eta handik aurrera, gero eta ahalegin handiagoa egin da ikasleak doktoretza egitera bultzatzeko. Helburu horrekin abiarazi dira zenbait ekimen. Batez ere, helburu honekin, azkeneko urteetan, doktoretza aurreko laguntzatarako berritze-eskaerak zein esleipen berriak deialdiak garatu izan dira. Egitasmo horrekin batera, aurtengo ikasturtean, master ofizialeko matrikulatuta dauden ikasleentzako ikerketa proiektu estrategikoetarako ikerketa beka deialdia irekitzea egokia ikusi da.

Ikerketa beka deialdi honek bere baitan biltzen ditu HUHEZIn master ofizialean matrikulatuta izanik, ikerkuntza-prestaketan dauden pertsonak, bertan adierazitako bekadun baten onuradun izanez gero. Bertan, onuradunei dagozkien bekaren kontzeptuak, eskubide eta betebeharrak zehazten dira, eta eskatzaileek jarraitu beharreko prozedurak aipatutako ikerketa beka jasotzeko.

IKERKETA BEKA DEIALDIAREN OINARRIAK

Lehena.- Ikerketa beka deialdiaren helburua

HUHEZIk 2017-2018 ikasturterako hamabi (12) ikerketa beka aurreikusi ditu master ofizialean matrikulatuta dauden ikasleentzat. Ikerketa proiektu estrategikoetarako ikerketa bekadunak HUHEZiko proiektu estrategiko batean txertatuta egon behar da eta proiektu horretan ikerketarako oinarritzko kompetentziak garatu beharko du curriculumez kanpoko praktiken bitartez.

Bigarrena.- Onuradunak

Atal honen lehenengo puntuari aurreikusitakoaren arabera ikerketa beka hauen onuradunak izan daitezke 2017-2018 ikasturtean master ofizialean matrikulatuta dauden ikasleak.

Hirugarrena.- Ikerketa bekaren ezaugarriak

3.1. Ikerketa bekaren zenbatekoa eta ordainketa-modua

A. Ikerketa bekaren zenbatekoa.- 2017-2018 ikasturterako ikerketa bekaren zenbatekoa honakoa da:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Master ofizialeko ikerketa beka	1.200 euro garbiak

B. Ordainketa-modua.

Ikerketa beka hauen ordainketa bi alditan ezarriko da:

1. Ikerketa beka deialdi honetako ebazpenaren ondoren, bekadun bakoitzeko **500 euroko** ordainketa egingo zaio.
2. Proiektu estrategikoko koordinatzailearen onespena jaso ondoren, bekadun bakoitzeko **700 euroko** ordainketa egingo zaio.

Laugarrena.- Prestatzen ari diren onuradunen eskubideak

Honakoak dira ikerketa beka hauen onuradunen eskubide orokorrak:

1. HUHEZIrengandik bere ikasketak normaltasunez garatu ahal izateko ikerketa eta laguntza jasotzea.
2. Delako ikerketa garatzen ari den HUHEZIKo ikerketa proiektu estrategiko batean txertatuta egotea.
3. HUHEZI eta onuradunaren arteko hitzarmena beteko da betiere 2014ko uztailaren 11ko 592ko errege dekretuan azaldutako irizpideen arabera (*Real Decreto 592/2014, de 11 de julio, por el que se regulan las prácticas académicas externas de los estudiantes universitarios*).
4. Ikerketan garatutako prestaketatik eratorritako jabetza intelektualerako eskubideak baliatzea, egindako ekarpenaren arabera, eta apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Jabego Intelektualaren Legearen testu bat eginean ezarritakoaren arabera. Aipatutako eskubideak egindako ikerketatik erator litezkeen beste eskubide batzuetatik bereziak izango dira, haiekiko bateragarriak eta metagarriak, talde-lanetik eratorritako baldintzatzaileentzako kalterik gabe, prestatzen ari den ikerketa-proiektu estrategiko batean hartzen duenean parte edo hari atxikita dagoenean.

Bosgarrena.- Ikerketa beka onuradunen betebeharrak

Ikerketa beka hauen onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

1. HUHEZIKo ikerketa proiektu estrategiko batean bere masterretako ikerketarako oinarritzko konpetentziak garatu beharko du. Horretarako 100 orduko dedikazio izango du eta hauek curriculumez kanpoko praktiken bidez espediente akademikoan espresuki azalduko dira.
2. Beka honen helburuak atarramendu onez betetzea, bai ikerketari, bai prestaketa akademikoari (masterra eta ikerketa-espezializazioari) dagozkionak. Horretarako, proiektu estrategikoko koordinatzailearen eskutik, aldiro-aldiro, lana horren jarraipenak ikasle-bekadunari egingo zaizkio.
3. HUHEZIren eta ikaslearen artean edo HUHEZIren, ikaslearen eta ikerketarekiko interesa duten hirugarren erakundeen artean izenpetzen diren hitzarmenetatik eratorritako konfidentzialtasun-konpromisoak errespetatzea eta betetzea.

Seigarrena.- Jakinarazpena, eskaera eta eskaeraren formalizazioa

6.1. Jakinarazpena

Interesdunek ikerketa beka hauek eskura ditzaketela bermatzeko, ondoko bideetatik jakinaraziko da: HUHEZIren web-gunea, pertsonalizatutako mezu elektronikoa bidalita matrikulatutako ikasleei.

6.2. Eskaera

Ikerketa beka hauek jaso ahal izateko, eskatzaileek honako baldintza bete beharko dute:

1. HUHEZIn master ofizialean matrikulatuta egotea.

6.3. Eskaeren formalizazioa: agiriak, eskaera-orriak eta epeak

Eskaera formalizatzeko, interesdunek honako agiriak aurkeztu beharko dituzte:

1. Eskaera-inprimakia beteta.
2. Matrikularen frogagiria, edo masterrean matrikulatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.
3. NANaren fotokopia edo baliokidea.
4. Espediente akademikoa eta Curriculumua.
5. Motibazio gutuna.
6. Eskatzaileak eskatutako dokumentuen jatorrizko alea eta kopia 2 aurkeztu beharko ditu.

Eskaera-orriak eta gainontzeko dokumentazioa HUHEZIKo Idazkaritza Akademikoan aurkeztu beharko dira, edo posta arruntez bidali. Eskaerak formalizatzeko inprimakiak interesatuen esku egongo dira HUHEZIKo Idazkaritza Akademikoan edo web-gunean.

Deialdi honetako eskaerak eta gainontzeko dokumentazioa aurkezteko epea 2017ko azaroak 13tik azaroaren 30era bitartekoa izango da.

Baldin eta oinarri hauetan eskatzen diren puntuetako bat betetzen ez duen eskaera edo dokumenturik bidaltzen bada, eskatzaileari 3 egun natural emango zaizkio akatsak zuzentzeko edota eskatutako dokumentuak aurkezteko, jakinaraziz horrela egin ezean eskaera ez dela aintzat hartuko.

Zazpigarrena.- Esleipena eta Baldintzak

7.1. Esleipenak eta irizpideak

1. Ebaluazio Batzordeak baloratuko ditu deialdi honetako oinarrietan ageri diren eskakizunak betetzen dituzten eskatzaileak. Batzorde hori HUHEZIKo Doktorego batzordeak osatuko du.
2. Ebaluazio Batzordeak eskatzaileen prestakuntza akademikoa, curriculum eta motibazio gutuna aztertuko du, eta haren esku geratuko da eskatzaileekin elkarrizketak izatea, erabakia hartzeko behar duen informazioa zabaltzeko xedez.
3. Ebaluazio Batzordeak honako irizpideen arabera aztertuko ditu hautaketa-prozesurako aukeratutako eskaerak (50 puntu guztira):
 - a) Espediente akademikoko nota 7,0 puntukoa edo gehiagokoa izatea: 20 puntu gehienez.
 - b) Eskatzailearen curriculum eta ikerketan formazioa eta esperientzia: 20 puntu gehienez
 - c) Motibazio gutuna: 10 puntu gehienez
4. Ebaluazio Batzordeak, hautaketa-prozesurako aukeratutako eskaerak baloratu ondoren, puntuaketaren arabera, zerrenda bat osatu eta publikatuko du.

7.2. Baldintzak

1. Ebaluazio Batzordeak eskatzaileen prestakuntza akademikoa eta curriculum aztertuko du, eta haren esku geratuko da eskatzaileekin elkarrizketak izatea, erabakia hartzeko behar duen informazioa zabaltzeko xedez.
2. Eskaerak aztertutakoan, jasotako puntuazioaren arabera zerrenda batean antolatuko dira eskatzaileak, altuenetik baxuenera.
3. Ebaluazio Batzordeak, gehienez, 10 eskola-egun izango ditu eskaerak aztertzeko eta erabakitzeko ikerketa beka berezi prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda
4. Esleitzen diren ikerketa bekei dagokienez, erabakia idatziz jakinaraziko zaie eskatzaileei eta HUHEZIKren web-gunean ere argitaratuko da ebazpena.

Zortzigarrena.- Ukoak

Onuradunek aurrerago erabakiz gero uko egitea ikerketa bekari, idatziz jakinarazi beharko diote HUHEZIKo HUHEZIKo Doktorego batzordeko koordinatzaileari, ukoaren arrazoiak adieraziz.

Bederatzigarrena.- Araudi aplikagarria

Ikerketa beka deialdi honetan zehazten ez denerako, aintzat hartuko da indarrean dagoen lege-araudiak eta HUHEZIKren Estatutuek eta Barne Arautegiek ezarritakoa.

Eskoriatzan, 2017.eko azaroak 8

Eskaera-inprimakia

**MONDRAGON UNIBERTSITATEKO – HUHEZI – HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEK FAKULTATEKO
2017-2018 MASTER OFIZIALETAKO IKERKETA BEKAK**

Izenpetzen duenak (bi deitura eta izena):

Sexua(G,E): ____ NAN.: _____ Jaiotza-data: 19 ____ / ____ / ____ /

Helbidea: _____

PK: _____ Herria: _____

Honako probintzia honetan errolatuta dagoenak: _____ Noiztik _____

1. Telefono-zenbakia: _____ 2. Telefono-zenbakia: _____

e-posta: _____

ESKATZEN DU

Eman diezaiotela, erantsitako datuei jarraiki, 2017-2018 MASTER OFIZIALETAKO IKERKETA BEKA:

ERANTSI BEHARREKO DOKUMENTUAK
1. Eskatera-inprimakia beteta.
2. Masterrean matrikulatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.
3. NANaren fotokopia edo baliokidea.
4. Espediente akademikoa eta Curriculuma.
5. Motibazio gutuna.
<i>Eskatzaileak eskatutako dokumentuen jatorrizko alea eta 2 kopia aurkeztu beharko ditu.</i>

.....-(e)n, 201..ko-aren-(e)(a)n.

Izpta.: